

EUSKAL DANTZAK

HELBURUAK:

Ikastaro honen helbururetariko bat Euskal dantzak duen garrantzia jasotzea da, bai ondare kultural bezala, bai jarduera sozial bezala. Bestetik, talde-zentzua indartzea oso inportantea da, hain zuzen, dantza taldeko kontzeptua pertsonen arteko lan bat bezala ulertu behar dugulako. Ildo honetatik jarraituz, Euskal Herriko dantzen ezagutza globala eta tradizioaren esanahia ulertzea eta barneratzea xedetzat hartuko dugu. Horretarako, adin txiki hauek eskatzen duten energia eta ludikotasuna kontuan hartuko dugu, ikasi beharreko dantzak eta pausuak errazak izan daitezen eta ondo pasa dezaten.

Koordinazioa, mugikortasuna eta dantzarekiko interesa gure ikastaroaren hiru zutaberi inportanteenak dira, bai oinarrizko dantzak ikasteko nola zenbait teknika ikasteko.

METODOLOGIA:

Erabiliko dugun metodologia norabide bitara bideratuko ditugu: alde batetik, dantza zehazt batzuk ikastera: Zazpi jausiak, ipurdi dantza, Zapatari, Txulalai,.....; eta bestetik, dantza ikastea jolas bat bezala har dezatela.

Izan ere, jorratuko ditugun teknikak honako hauek izango dira: pausoak ondo ikasi, formazioak ondo egiten ikasi (borobilak, lerroak...), ezker/eskuin kontzeptuak ulertu eta beraien koordinazioa landu; saltoak ondo ematen eta batera ikasi.

Klasearen eskema, normalean, hauxe izango da: hasieran beroketa jolask egingo ditugu; ondoren edukiak landuko ditugu eta azkenik, amaitzeko jolas bat egingo dugu.